

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

468.000 euroko laguntzen deialdia egin da langabeak kontratatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako

NAOak ere argitaratu du ostiral honetan Nafarroako Gobernuak berriki onartutako Lan Eskaintza Publikoa

Viernes, 17 de abril de 2015

Nafarroako Aldizkari Ofizialak 468.000 euroko diru-laguntzen deialdi bat [argitaratu](#) du ostiral honetan, apirilak 17, irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurten egindako langabeen kontratazioa diruz laguntzeko enplegua edo lan-merkaturatzea sustatzeko zerbitzuak garatze aldera.



Langile bat.

Laguntza horiek eskatzeko epea (kontratazio horien lan-kostuen % 80raino finantza dezakete) maiatzaren 18an amaituko da. Eskaerak Nafarroako Enplegu Zerbitzuan aurkeztu behar dira, bai eta Nafarroako Gobernuko [gainerako erregistro](#)etan edo [30/1992 Lege](#)an ezarritako tokietan ere.

Europako Gizarte Funtsak % 50ean kofinantzatutako laguntza horiek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-kudeatzailearen ebazpen batek arautzen ditu, eta hark datozen urteetarako oinarriak finkatzen ditu, gainera.

Haiek baliatu nahi dituzten erakundeek ez dute irabazi-asmorik izan behar, legez eraruta izango dira, egoitza soziala Nafarroan edo zentro bat Foru Komunitatean izatea; horrekin batera, beren estatutuen helburuetan jasoko da diruz lagundutako zerbitzua beteko dela, beste baldintza batzuen artean.

Diru-laguntza horiekin kontratatzen diren langabeek Nafarroan egin beharreko dute lan, eta lan hori honako hauei lotuta izango da: lan-orientazioa, ekintzailatzaren sustapena, lanbide-gaitasunen hobekuntza, lan-bitartekotza, enpleguaren prospekzioa edo antzeko beste jarduera batzuk.

Adierazi denez, Nafarroako Gobernuak kontratazio horien lan-kostuen % 80raino finantzatuko du. Kalte-ordain, aparteko ordu, arropa, dieta eta abarrei lotutako gastuak kanpoan geratzen dira. Erakunde bakoitzerako gehieneko diru-laguntzak 60.000 euro izango da, eta laguntza horien bidez gehienez ere sei lagun kontratatu ahalko ditu.

Lan eskaintza publikoa, argitaratuta

Bestalde, Nafarroako Aldizkari Ofizialak [iragan hilean Foru Gobernuak onartutako Lan Eskaintza Publikoa](#) ere [argitaratu](#) du ostiral honetan.

Haren barnean 358 lanpostu berri daude, eta haietatik 99 uda aurretik deituko dira.

Lan Eskaintza Publiko horren barnean lanpostu berrien 269 plaza daude eta 89 mediku-laguntzako buruzagitzak, Nafarroako Ospitalegunearen bateratze-prozesutik sortutakoak; horiek orain bitarteko eran beteta daude, eta lehiaketan bidez bete behar dira. Eskaintza horri 2009ko Lan Eskaintza Publikoari dagozkion beste 89 lanpostu huts erantsi behar zaizkio (2011n etendakoa), orain berriz ere aktibatu baita.

Enplegu berrietatik sortutako 358 plazetatik (mediku-buruzagitzak kanpoan utzita) 209 Osasunari dagozkio, 134 Hezkuntzari, 10 suhiltzaileei eta beste 5 adimen-urritasuna duten pertsoneri gordetzen zaizkie. 358 enpleguez gain, Nafarroak beste 30 plaza izango ditu Justiziako Administrazioari langileen arloan, eta haien deialdia bere garaian egingo du Estatuak.

Suhiltzaileen 10 plaza eskainiko dira lehenik eta behin, eta haien deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da datozen egunotan. Gainera, uda aurretik Osasuneko 89 lanpostu deituko direla aurreikusten da (7 emagin, 69 erizaintza-laguntzaile, eta erradiagnostikoko 13 teknikari espezialista); lanpostu horiek jadanik aipatutako 2009. urteko eskaintzari dagozkio, 2011n etenda geratu zena.

Gainerako plazak aurtengo bigarren seihilekoan izapidetzen hasiko dira. Hezkuntzan, irakasleak lanean 2016-2017 ikasturtean hasiko direla aurreikusten da.